

7 Udal Administrazioa

IBARRAKO UDALA

Dirulaguntzen ordenantza orokorra behin betiko onartzea.

IBARRAKO UDALA

Iragarkia

Jendaurrean jarrita egoteko arauzko epea inolako kexarik eta oharrik aurkeztu gabe igaro ondoren, 2013ko apirilaren 11n udalbatzarrak egindako ohiko osoko bilkuran hartutako hasierako erabakia indarrean jarri da eta behin betiko bihurtu da. Erabaki horren bidez, Ibarako Udaleko dirulaguntzaren Ordenantza Orokorra eta dirulaguntzen planari hasierako onarpena eman zitzaion. Jarraian araudiaren testu osoa argitaratu dugu, apirilaren 2ko 7/85 Legeak, Toki-administrazioaren Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan xedatutakoa bete dadin.

Ibarra, 2013ko maiatzaren 30a.—Alkatea. (5663)

Ibarako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.

AURKIBIDEA

ZIOEN AZALPENA

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. art. Helburua, definizioa eta aplikazio eremua.
2. art. Arautegi aplikagarria.
3. art. Printzipio orokorrak.
4. art. Dirulaguntza jasotzeko betebeharrak.
5. art. Organo eskudunak, dirulaguntzak emateko.
6. art. Onuradunak.
7. art. Entitate laguntzailea.
8. art. Onuradun edo entitate laguntzaile izateko betebeharrak.
9. art. Onuradunen eginbeharrak.
10. art. Entitate laguntzaileen eginbeharrak.
11. art. Lankidetzeta-hitzarmena.
12. art. Dirulaguntzak emateko oinarri erregulatuak.

II. TITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATE PROZEDURAK

I. Kapituluua. Prozeduren sailkapenarena

13. art. Dirulaguntzak emateko prozedurak.

II. Kapituluua. -Dirulaguntzak norgehiagokako erregimenean emateko prozedurarena

14. art. Hasiera: Deialdia.

15. art. Instrukzioa.

16. art. Ebazpena.

17. art. Publizitatea.

III. Kapituluua. -Udal aurrekontuan izendatutako dirulaguntzak zuzenean emateko erregimen eta prozedurarena

18. art. Erregimena.

19. art. Hasiera.

20. art. Instrukzioa.

21. art. Ebazpena.

22. art. Dirulaguntzaren onarpena.

IV. Kapituluua. -Gainerako dirulaguntzak zuzenean eta ez ohiko gisan emateko erregimen eta prozedurarena

23. art. Zuzeneko dirulaguntzak.

24. art. Dirulaguntzak zuzenean ematea, onuradunaren izaeragatik lehia publikorako aukerarik ez dagoenean, dirulaguntzaren xedea egiteko gaitasuna duen onuraduna edo onuradun taldea bakarra delako.

25. art. Dirulaguntzak zuzenean ematea, justifikatuta dagoenean zaila dela aplikatzea norgehiagokako printzipioa: Banakako ebaluazioko erregimena

26. art. Ebazpena.

27. art. Publizitatea.

III. TITULUA

DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOAREN PROZEDURARENA

I. Kapituluua. -Gastu subentzionagarriak, azpikontratatzea eta finantzaketa

28. art. Gastu subentzionagarriak.

29. art. Azpikontratazioa.

30. art. Jarduera subentzionagarrien finantzaketa.

II. Kapituluua. Aurrekontuaren kudeaketa prozedura

31. art. Gastuaren onarpena.

32. art. Dirulaguntzaren ordainketa.

III. Kapitularia. Dirulaguntzen justifikazioa

33. art. Dirulaguntzen justifikazioa.

34. art. Justifikazioa, egindako gastuaren kontu-arrazoiak emanez.

35. art. Ondasun higiezinak eskuratzeko dirulaguntzen justifikazioa.

36. art. Justifikazioa modulu bidez.

37. art. Justifikazioa kontabilitateko egoera orriak aurkeztuz.

38. art. Entitate laguntzaileek kudeatutako dirulaguntzen justifikazioa.

39. art. Justifikatzeko epea.

40. art. Justifikatzeko eginbeharra ez betetzearen ondorioak.

41. art. Dirulaguntzen egiaztapena.

IV. TITULUA

ITZULKETAK

I. Kapitularia. Dirulaguntzen itzulketa

42. art. Dirulaguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna.

43. art. Itzultzeko eta ordainketak atxikitzeko arrazoiak.

44. art. Itzuli beharreko kredituaren izaera.

45. art. Preskripzioa.

46. art. Itzultzeraren behartuak.

II. Kapitularia. Itzulketa egiteko prozedura.

47. art. Itzulketa egiteko prozedura.

V. TITULUA

KONTROL FINANTZARIOARENA

48. art. Kontrol finantzarioaren helburua.

49. art. Kontrol finantzarioaren prozedura.

VI. TITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGOR

ADMINISTRATIBOAK DIRULAGUNTZEN

GAINEAN. ZIGORTZEKO PROZEDURA

50. art. Arau hausteak eta zigor administratiboak dirulaguntzen gainean. Zigortzeko prozedura.

AZKEN XEDAPENAK

Xedapen indargabetzailea.

Azken xedapenetako lehenengoa.

Azken xedapenetako bigarrenkoa.

ZIOEN ADIERAZPENA

Ibarrako Udalak dirulaguntza ugari ematen du pertsona fisiko eta juridiko eta entitate publiko eta pribatuen eske sozial eta ekonomikoei erantzuteko helburuarekin.

Era horretan, dirulaguntzen jarduera, hain justu, eraturik dago sustapen teknika bat bezala edota, are gehiago, lankidetzako prozedura baten gisara, Administrazio honen eta partikularren artean, interes orokorrekoak bezala jotako jarduerak kudeatzeko, besteak beste, honelako eremuotan: Gizarte ekintza, pertsonen eta herrien arteko kooperazioa eta elkartasuna, etxebizitza, kultura, hezkuntza, gazteria, kirola, ingurumena, merkataritza, interes publikoko jarduera pribatu jakin batzuen sustapena, aisia eta denbora libre, edo herritarren partaidetza zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoaren eskari bezala.

Dirulaguntzen Ordenantza Orokor honen oinarriak printzipio orokor batzuk dira eta printzipio horiek iradoki behar dute beti dirulaguntzak emateko jarduera, hain zuzen ere: Berdintasuna, publizitatea, gardentasuna, objektibotasuna, efikazia eta eraginkortasuna.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Ibarrako Udalean aplikaziozkoa dena bere 3.1.b eta 3.2 artikuluen arabera, 9.2 artikuluan honako hau xedatzen du: Dirulaguntzak eman baino lehen, haiek erregulatzen dituzten oinarriak onartu behar direla, aipatu legeak ezarritako terminoetan, eta dagokion Aldizkari Ofizialean argitaratu. Bestetik, lege bereko 17.2 artikulua haxe dio: Udalen dirulaguntzak erregulatzen dituzten oinarriak onartu behar direla aurrekontua exekutatzeko oinarrien markoan, Dirulaguntzen Ordenantza Orokor baten bidez edo dirulaguntza modalitate bakoitzaren ordenantzaren bidez.

Aurreko paragrafoak dioena betetzeko, beharrezkoa da onartzea marko juridiko egoki bat, Ibarrako Udalaren esparruan dirulaguntzak emateko oinarriak erregulatuko dituen, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari eta hura garatzen duen Erregelamenduari, uztailaren 21eko 887/2006 EDak onartuari, egokituta. Hori guztia Dirulaguntzen Ordenantza Orokor honen bitartez gauzatuko da.

Ordenantza Orokor hau laguntza publikoen gainean da; hain zuzen ere, dirua emanez ematen diren laguntzei buruz. Ildo horretatik, bidezko arauak ezartzen ditu, efikazia eta eraginkortasun handiena lortzeko eta, bide batez, sendotzen ditu era honetako laguntza ekonomikoek duten izaera publikoak eskatzen dituen kontrola eta gardentasuna.

Bestalde, komenigarria eta beharrezkoa da irizpide homogeenak ezartzea haiek tramitatzeko eta justifikatzeko, eta, era berean, dagozkien departamentuek, eta Kontuhartzaitzak berak, dirulaguntzaren helburua betetzeko egiten dituzten egiaztatze lanak errazteko.

Beraz, Ordenantza Orokor honen xedea da Ibarrako udalak arlo ezberdinetan diruz lagundutako jarduera guztiak kokatzea. Horrez gain, diru laguntzei buruzko Plan estrategiko bat egingo da azaroaren 17ko 27/2003 legeak xedaturikoari jarraiki (itsatsirik doa plan estrategikoa).

Diru laguntzei buruzko plan estrategikoa aldatu egingo da legeak ezarritako epea amaitutakoan.

Urtero, arlo bakoitzak bere arloko diru laguntzen deialdi zehatzen proposamena egingo du, eta horiek Tokiko Gobernu Batzordeak onartuko ditu batzordearen irizpena aintzat hartuta. Deialdiak, behin eskumeneko organoak onartu ondoren, legeak ezarritako moduan emango dira argitara.

Ordenantza hau hurrengo titulu eta xedapen hauek osatzen dute.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua, definizioa eta aplikazio eremua.

1.1. Helburua:

Ordenantza honen xedeak dira erregulatzea eta finkatzea Ibarako Udalak dirulaguntzak emateko prozedura, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen eta hura garatzen duen erregelamendua onartzen duen uztailaren 16ko 887/2006 Errege Dekretuaren arabera.

1.2. Definizioa:

Dirulaguntza, Ordenantza honen ondorioetarako, hauxe litzateke: Ibarako Udalak pertsona publiko edo pribatuen alde dirua baliatzea, honako baldintza hauek beteta:

- a) Dirulaguntza pertsona edo entitate onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.
- b) Helburu jakin bati lotuta egotea: Jada egin den edo eginkizun dagoen proiektu bat exekutatu, jarduera bat burutu, jokaera berezi bat hartu, edo egoera jakin bat gertatu. Horrez gain, ezartzen diren obligazio material eta formalak bete behar ditu onuradunak.
- c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokaera edo egoerak herri onurako edo interes sozialeko jarduerak bultzatzea edo helburu publikoren bat sustatzea.

1.3. Salbuespenak:

Ordenantza Orokor hau ez da aplikagarria izango hurrengo kasuetan:

- a) Aplikatzekoa den zerga edo sektore legeriak araututako diru ekarpenak (hobariak, exentzioak).
- b) Zerbitzu publiko baten kontzesiodunari emandako ekarpenak, zerbitzuaren funtzionamenduaren kontraprestazio bezala.
- c) Beste Administrazio batzuk emandako diru ekarpenak, Udala bitartekari hutsa izanda.
- d) Udalaren ekarpenak, hartzaileek jarduerak osorik finantzatzeko helburuarekin: Erakunde autonomoak, entitate publiko enpresarialak; partzuergoak; mankomunitateak; fundazioak; elkarteak, etab., non Udalak ordezkartitza duen haietan eta urtero euren aurrekontuak finantzatzeko ekarpen ekonomikoak egiten zaizkien.
- e) 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 5. xedapen gehigarrian aipatzen dituen elkarten aldeko ekarpenak (Udalen Federazioa eta Elkartea).
- f) Korporazioan ordezkaturako talde politikoen funtzionamendu gastuak artatzeko ekarpenak.
- g) Onuradunak eskatu gabe ematen diren sariak.

2. artikulua. Arautegi aplikagarria.

Dirulaguntzak ematea eta entitate emailearen eta onuradunaren arteko erlazio juridikoa arautuko ditu udal Ordenantza honek, aintzat hartuta beti dirulaguntzen lerro bakoitzaren oinarri espezifikoak eta emateko orduan indarrean dagoen araudia.

Ordenantza honetan eta oinarri berezietan aurreikusi ez den orotan xedapen hauek aplikatuko dira: Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), horren garapenerako Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua; uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*), eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

3. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Ordenantza Orokor honek erregulatzen dituen dirulaguntzen kudeaketa hurrengo printzipio hauekin bat

etorri egingo da:

- a) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia, objektibotasuna, tratu berdintasuna eta diskriminazio eza.
- b) Efikazia finkatutako helburuak betetzen.
- c) Eraginkortasuna baliabide publikoak asigmatzerakoan eta erabiltzerakoan.
- d) Kongruentzia laguntzak ematea justifikatzen duten bitarteko eta helburuen artean.

2. Dirulaguntzak norgehiagoka bidez edo zuzenean emango dira.

3. Ordenantza Orokor honek erregulatzen dituen dirulaguntzek borondatezko izaera dute, ez dute eskubiderik sortzen dirulaguntzarik lortzeko ondorengo urteetan (baldin eta ez badira eman urte anitzeko gastu izaerarekin) eta ezin dira alegatu aurrekari bezala.

4. Edozein kasutan, Udala eta bere menpean dauden entitateak salbuetsita geratuko dira edonolako erantzukizun zibil, merkantil, laboral edo bestelakoetatik, diruz lagundutako pertsona edo entitateek egitera beharrik dauden ekintzengatik.

4. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko betebeharrak.

1. Dirulaguntzak emateko bete beharreko baldintzak:

— Ematen duen organo administratiboaren eskumena.

— Dirulaguntza ematean sortzen diren obligazio ekonomikoei erantzuteko kreditu egokia eta behar adinakoa egotea.

— Dirulaguntza emateko prozedura tramitatzea.

— Eduki ekonomikoa duten ekintzak alde aurretik fiskalizatzea, aplikaziozko arautegian aurreikusitako terminoetan.

— Gastua onartzea hartarako eskumena duen organoak.

2. Aurreko betebeharez gainera, nahitaezkoa izango da betetzea beste baldintza hau: Ibarako udalerriaren lurralde eremuan kokatzea, orokorki, helburua, xedea, proiektuaren exekuzioa, jardura burutzea, jokaera berezia hartzea –eginak edo egitekoak– edo subentzionatzekoa den egoeraren konkurrentzia.

Aparteko kasuren batean, subentzionatzekoa den jarduerak Ibarako lurralde eremua gainditzen badu, onuragarria izan beharko du modu zuzenean edo zeharka udal interesarentzat. Ezaugarri horrek behar bezala justifikatuta geratu behar du espedientean, arrazoizko txostena eginez dirulaguntza eman baino lehen.

Betebehar horretatik salbuetsita geratzen dira, hain justu, garapen bidean dauden herrialdeei laguntzeko aurrekontu programan aurreikusitako garapen proiektuentzako laguntzak.

3. Ez dira subentzionagarriak izango herritarrei irekiak ez diren jarduerak, bai haiek prestatzerakoan nahiz haiek gauzatzerakoan.

5. artikulua. Organo eskudunak, dirulaguntzak emateko.

1. Ibarako Udalaren eremuan, subentzio linea bakoitzaren deialdi espezifikoa eta bere ebazpena eta zuzeneko dirulaguntzak ematea alkateari edo Gobernu Batzarrari dagokie, administrazioaren antolamenduan unean-unean indarrean dauden eskumenen eta eskuordetzeen arabera.

6. artikulua. Onuradunak.

Subentzioen onuraduna da dirulaguntza emateko oinarria den jardura gauzatu behar duen pertsona edo

entitatea edo dirulaguntza jasotzea legitimatzen duen egoeran dagoena.

Dirulaguntza jasotzeko aukera Ibarrako udalerrian egoitza edo ordezkari itza iraunkorra duten pertsona edo elkarteek izango dute.

Dirulaguntzen onuradun izateko, elkarte eta fundazioek dagokien erregistro ofizialean inskribatuta egon behar dute.

7. artikulua. Entitate laguntzailea.

Entitate laguntzailea da subentzioarekin zerikusia duten xedeetarako dirulaguntza ematen duen organoaren izenean eta kontura diharduen entitatea, diru publikoak entregatu eta banatzen dituen pertsona edo entitate onuradunei, oinarri erregulatuarekin hala ezarrita badago, edota subentzioaren kudeaketan laguntzen duena, jasotako funtsak alde aurretik entregatu eta banatu gabe. Funts horiek ez dira inolaz ere kontsideratuko bere ondarearen parte.

8. artikulua. Pertsona edo entitate onuradun edo laguntzaile izateko betebeharrak.

1. Diru laguntza emateko arrazoi den egoeran dauden pertsona edo entitateak, edota oinarri arautzaileetan eta deialdian aurreikusitako zirkunstantziak biltzen dituztenak izan daitezke pertsona edo entitate onuradunak edo laguntzaileak.

2. Ondorengo zirkunstantzia hauetako batean dauden pertsona edo entitateak ezin izango dira izan onuradun edo entitate laguntzaile, non eta diru laguntzaren izaeratik beragatik ez den bere araudi erregulatuarekin horrelakorik salbuesten:

a) Epai irmoaren bidez dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzera kondenatuak izan direnean.

b) Konkurtso deklarazioa eskatuta daukatenean, edozein prozeduratan kaudimengabekotzat deklaratuak izan direnean, konkurtsoan deklaratu daudenean, esku-hartze judizialaren menpe daudenean, edo Konkurtso Legearen arabera ezgaituak gertatu direnean konkurtsoaren kalifikazio epaian jarritako ezgaitasun epea orain amaitu gabe.

c) Errudun deklarazioa ekarri duen arrazoiarengatik, Administrazioarekin egindako edozein kontratuen suntsiarazte irmoa eragin denean.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza sozietateetako administratzaileak edota beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkari itza dutenak sartuta daudenean kontratatzeko bateraezintasun kasuren batean, bakoitzean aplikaziozkoa den legeria espezifikoren arabera; edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak erregulatu dituen hautapenezko karguren bat izatea.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga obligazioak edota Gizarte Segurantzakoak ez edukitzea beteta, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena ematerakoan.

f) Beren zerga egoitza dagoenean erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

g) Udal honek edo bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzak itzuli behar izateagatik sortutako obligazioak ordaindu gabe dituztenean.

h) Ebazpen irmoaren bidez zigortuak izateagatik diru laguntzak ezin eskuratu ditzaketenean, subentzio eta laguntza ekonomikoen gaitan eta zergei dagokienez arauak hausteagatik abiatutako administrazio prozeduraren ondorioz.

3. Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak 4. artikuluen 5 eta 6

apartatuetan aurreikusitako debeku arrazoietakoa batean sartuta dauden elkarteak ezin izango dira inola ere izan dirulaguntzen onuradun edo entitate laguntzaile.

4. Era berean, ezingo da subentziorik eman, Ibarako Udalarekin dituzten zorreatatik premiamendu bidezko kobrantza prozeduretan sartuta edo udal entitate honekin zerga obligazioak bete gabe dauzkaten partikularrei edo entitateei, aipatu zorrak ordaindu eta kitatu arte.

Halere, salbuespeneko kasuetan eta kontuan izanik dirulaguntzaren izaera, Ibarako Udalak alde aurretik ofizioz kita ditzake subentzioen onuradun diren pertsona edo entitateengandik kobratzeko dauden zorrak, aipatu dirulaguntzak konpentsatuz, edo haien zati bat, zor dituzten kopuruekin, eta baita alde batera utzi ere aipatu betebeharra gizarte larrialdiko egoera berezietan. Salbuespen hori aplikatu ahal izateko, aukera hori aurreikusi egin behar da dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean, eta, era berean, justifikatuta geratu behar du espedientearen bidezko txosten teknikoaren eginda, azalduz erabaki horren salbuespeneko izaera egiaztatzen edo aholkatzen duen arrazoia edo arrazoiak.

5. Pertsona onuradun edo entitate laguntzailearen izaera eskuratzeko debekurik ez edukitzea hurrengo modu hauetakoren batez justifikatu ahal izango da:

a) Lekukotza judiziala, ziurtapen telematikoak edo datu transmisioak, Estatuko Administrazio Orokorrek edo autonomia erkidegoetakoek teknika elektronikoen erabilera erregulatzeko ezarritako arauak xedatuarekin bat etorritik, edo ziurtapen administratiboa.

b) Eskatzaileak egindako erantzukizun aitortpena. Deialdiak baliabide espezifikokoak ezarri ahal izango ditu egiaztatzen egiteko, aurkeztutako aitortpen edo egiaztagirien benetakotasuna ikertzeko Administrazioak duen ahalmenaren kalterik gabe.

6. Ez da beharrezkoa izango agiri bidez justifikatzea lehendik ere udal artxiboetan jasota dauden alderdiak. Horrelako kasuetan, entitatearen ordezkari legalak udal artxiboetan dagoen dokumentazioa indarrean dagoela, ez dela aldatu, adierazteko erantzukizun aitortpena aurkeztu behar du.

7. Interesatuaren eskaerak eskatzaileak sinatutako eskabide orri baten bidez formulatu behar dira, deialdiak berak aipatzen duen eredu normalizatuarekin bat etorritik.

8. Eskaerak aurkezteko epea, oro har, deialdia egin eta hurrengo egunetik aurrera hilabete batekoa izango da. Hala ere, dirulaguntzaren berezitasunagatik edota zirkunstantziak ezohikoak direnean, deialdiak ezarri ahal izango du beste epe bat.

9. artikulua. Onuradunen eginbeharrak.

Oinarri espezifikoen jasotakoez gainera, hurrengo hauek dira onuradunen –pertsona edo entitateen- obligazioak:

a) Dirulaguntzak emateko arrazoi den xedea betetzea, proiektua gauzatea, jarduera burutzea edo jokabidea hartzea.

b) Dirulaguntzaren organo emailearen edo erakunde laguntzailearen aurrean justifikatzea dirulaguntza emateko edo baliatzeko betebeharrak eta baldintzak, jarduera egitea eta helburua betetzea.

c) Organo emaileak edo, hala badagokio, entitate laguntzaileak egin beharreko egiaztapen jardunen mende jartzea, eta baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen bestelako egiaztapen eta kontrol finantzarioaren mende ere, aipatutako jarduketetan eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuta, baldin eta lehendik ez badago udal artxiboetan.

d) Egiaztatzea, dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egin baino lehen, zerga eta Gizarte Segurantzako obligazioak egunean dituela, organo eskudunek egindako ziurtapenen bidez. Halere, onuradunari urte osoan emandako subentzioen kopuru metatuak ez baditu 1.000 euro gainditzen, aipatu obligazioak betetzen dituela egiaztatzeko, alderdi horien gaineko erantzukizun aitortpena aurkeztu behar du.

Ibarrako Udalarekin dituen zerga obligazioak egunean edukitzearen baldintza betetzea ofizioz egingo da.

- a) Edukitzea: Kontabilitate liburua, erregistro diligentziatuak, merkataritza legeriak nahiz onuradunari kasu bakoitzean aplikaziozkoa zaion sektoreko arauk eskatzen duten terminoetan ikuskatutako dokumentazioa, eta subentzioen oinarri espezifikoek, deialdiek edota ebazpenek exijitutako kontabilitateko egoera orriak eta erregistro espezifikoak, egiaztatze eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bertzeko helburuarekin.
- b) Gordetzea jasotako funtsen aplikazioaren dokumentu justifikatzaileak, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol jarduketan xede izan daitezkeen heinean.
- c) Organo emaileari edo entitate laguntzaileari jakitera ematea bestelako subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderik lortu izana subentzionatutako jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori egin behar da, hain zuzen, aipatu laguntzen berri izan bezain laster eta, edozein kasutan, jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioa baino lehen.
- d) Subentzioen xede diren programak, jarduerak, inbertsioak edo jarduketak Ibarrako Udalak finantzatzen dituela egoki zabaltzea bidezko publizitatea emanaz, baldin eta betebeharrak hori dagokion deialdi, hitzarmen edo ebazpenean exijitu bada.
- e) Jasotako funtsak itzultzea, ordenantza honetan xedatutako kasuetan.
- f) Euskararen udal ordenantza errespetatzea eta diruz lagundutako proiektu edo jardueran genero ikuspegia txertatzea.

10. artikulua. Entitate laguntzaileen eginbeharrak.

Entitate laguntzaileen eginbeharrak hauexek dira:

- a) Entregatzea pertsona edo entitate onuradunari jasotako funtsak, dagokion deialdian edo entitate emailearekin izenpetutako hitzarmenean ezarritako irizpideen arabera.
- b) Egiaztatzea, hala dagokionean, subentzioa emateko baldintzen eta betebeharren baliozkotasuna eta haiek bete direla; eta subentzioa emateko edo hartaz baliatzeko erabakia hartzeko oinarri izan den jardueraren egin dela eta xedea bete dela.
- c) Jasotako funtsak entregatu direla justifikatzea subentzioa eman duen organoaren aurrean eta, hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunari aurkeztutako justifikazioa entregatzea.
- d) Aipatu funtsen kudeaketaz organo emaileak egin ditzakeen egiaztapen jardunen mende jartzea, eta baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen bestelako egiaztapen eta kontrol finantzarioaren mende ere, aipatutako jarduketetan eskatzen zaion informazio guztia aurkeztuta, baldin eta lehendik ez badago udal artxiboetan.

11. artikulua. Lankidetzaren hitzarmena.

1. Lankidetzaren hitzarmena formalizatuko da organo emailearen eta entitate kolaboratzailearen artean. Hitzarmen horretan entitate laguntzaileak beregain hartutako baldintzak eta betebeharrak erregulatuko dira.

2. Lankidetza hitzarmenaren testuak oniritzi juridikoa eduki behar du eta udal zerbitzu juridikoek egindako txosten juridikoa, zuzenbidearekin bat datorrela adierazten duena, itsatsita eduki behar du.

12. artikulua. Dirulaguntzak emateko oinarri erregulatzailerak.

1. Subentzioen oinarri erregulatzailerak gutxienez hurrengo alderdi hauek jaso behar dituzte:

- a) Dirulaguntzaren xedearen definizioa.
- b) Dirulaguntza lortzeko pertsona edo entitate onuradunek bete behar dituzten baldintzak eta eskaerak aurkezteko era eta epea.
- c) Subentzioa emateko prozedura.
- d) Subentzioak emateko irizpide objektiboak eta, hala badagokio, haien ponderazioa.
- e) Subentzioa emateko prozeduraren ordenazio (hasiera), instrukzio eta ebazte prozeduraren organo eskudunak eta ebazpena jakinarazteko epea.
- f) Epea eta modua justifikatzeko, batetik, subentzioa emateko arrazoi izandako helburua bete dela eta, bestetik, jasotako diruaren aplikazioa.
- g) Beharrezkotzat jotzen diren berme neurriak, hala dagokionean, organo emailearen alde, haiek eratzeko baliabideak eta haiek ezerezteko prozedura.
- h) Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako bestelako subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, edozein dela haiek ematen dituen administrazio, erakunde publiko edo entitate pribatu.
- i) Subentzioak emateko ezarritako baldintza ez betetzearen gaineko mailaketa irizpideak.

II. TITULUA

DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURAK

I. KAPITULUA. PROZEDUREN SAILKAPENARENA

13. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak.

1. Subentzioak emateko prozedura arrunta norgehiagokako erregimenean tramitatuko da. Horrelakotzat joko da, hain zuzen, subentzioa emateko prozedura gauzatzen bada konparatuz aurkeztutako eskaerak, beren arteko hurrenkera bat ezartzeko, oinarri erregulatzaileretan eta deialdi bakoitzean alde aurretik finkatutako balorazio irizpideen arabera; eta adjudikatu, dagokien deialdietan finkatutako eta baimendutako gastu mugarekin, aipatu irizpideak aplikatuta baloraziorik handiena lortu dutenak.

Dirulaguntza emateko proposamena kide anitzeko organo batek formulatuko dio organo emaileari, organo instruktorearen bidez. Kide anitzeko organo horrek ezarriko ditu bidezko oinarri erregulatzailerak.

Kide anitzeko organoaren edo balorazio batzordearen funtzionamenduak kide anitzeko organoentzat honako xedapen honek dioena bete behar du: Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen abenduaren 26ko 30/1992 Legeko II. Kapituluua. Hark proposamen txosten arrazoitua egin behar du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuz.

2. Ohiz kanpo, deialdiaren xedearen arabera eta aurreikusten bada hartan, organo eskudunak hainbanatu ahal izango du subentzioaren pertsona edo entitate onuradunen artean, dirulaguntzetarako izendatutako zenbateko osoa.

3. Hurrengo subentzioak eman ahal izango dira zuzeneko erregimenean:

- a) Ibarako Udalaren Aurrekontuan hala izendatuta daudenak.

b) Udalak eman behar dituenak lege mailako arau batek hala xedatuta edo arau horrek Udalari ezarritako zenbatekoa. Horrelakoetan emate prozedurak jarraitu beharko dio bere arautegiaren ondorioz aplikaziozkoa zaionari.

c) Ohizko kanpoko izaerarekin:

c.1. Behar bezala justifikatutako interes publiko, sozial, ekonomiko, heziketako, kultural, zientifiko, humanitario edo bestelakoa arrazoiak frogatzen dituzten subentzioak, jasotzailearen ezaugarriengatik norgehiagoka publikoaren aukerarik ez badago, onuradun bakarra edo onuradun talde bakarra dagoelako gaituta subentzioaren xedea gauzatzeko.

c.2. Bestelako dirulaguntzak, justifikatuta baldin badago zaila dela aplikatzea norgehiagokako printzipioa. Kasu honetan, subentzioaren erabilera, interes soziala eta xede publikoa arrazoitzeaz gainera, justifikatu behar da espedientean, txosten arrazoitu baten bidez, norgehiagokako printzipioa aplikatzeko zailtasuna.

4. Norgehiagokako erregimenean nahiz zuzenean emateko erregimenean, ezin izango da eman deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean zehaztutako kopurua baino handiagoko subentzioa.

II. KAPITULUA. -DIRULAGUNTZAK NORGEHIAGOKAKO ERREGIMENEAN EMATEKO PROZEDURARENA

14. artikulua. Hasiera: Deialdia.

1. Subentzioak emateko prozedura ofizioz hasten da beti, kide anitzeko organoaren proposamenarekin.

2. Ofiziozko hasiera betik deialdi baten bidez egingo da. Deialdi hori Gobernu Batzarrak egingo du.

3. Gaia kudeatzen duen udal arloak, Aurrekontuaren barruko kreditua atxiki eta udal kontuhartzaileak egindako txostena aurretik dela, deialdi proposamena organo eskudunari aurkeztuko dio, onartu ahal izateko. Deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu behar da.

4. Deialdiak gutxienez hurrengo eduki hau izango du:

a) Deialdiko subentzioaren arautegi erregulatzailaren gaineko informazioa.

b) Subentzioei dagozkien aurrekontu kredituak eta haien gehienezko kopuruak kreditu erabilgarrien barruan.

c) Subentzioa ematearen xedea, baldintzak eta helburua.

d) Subentzioa norgehiagokako erregimenean ematen dela adieraztea.

e) Dirulaguntza eskatzeko betebeharrak eta haiek egiaztatze modua.

f) Prozeduraren instrukziorako eta ebazpenerako organo eskudunak adieraztea.

g) Balorazio Batzordeko kideen izendapena.

h) Eskerak aurkezteko epea eta lekua.

i) Ebazteko eta jakinarazteko epea.

j) Eskerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioa.

k) Adieraztea ebazpenak amaiera ematen diola bide administratiboari.

l) Eskerak baloratzeko irizpide objektiboak.

m) Hala badagokio eta deialdiaren xedearen arabera, subentzioetarako izendatutako zenbateko osoa pertsona edo entitate onuradunen artean hainbanatuko den adieraztea.

n) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio-Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59 artikuluan aurreikusiaren arabera.

o) Berriazko ezespeneren edo ustezko ezespeneren kontra jar daitezkeen edo daitezkeen errekursoak.

p) Adieraztea subentzionatutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi nahiz grafikoan hizkera sexistarik ez erabiltzea nahitaezkoa dela.

Gehigarri gisara, deialdiak hurrengo eduki hauek izan ditzake:

a) Onuradunak finantzatu behar duen proiektuaren aurrekontuaren ehunekoa, berak zuzenean finantzatuta edo beste subentzio batzuen bidez.

b) Konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukeraren ezarpena, justifikazioa eta ordaintze modua.

c) Subentzioaren bateragarritasuna eta bateraezintasuna.

d) Justifikazio modua, dagokion dokumentazioa aurkezteko epea eta ebaluazio txostenean sartu beharreko alderdiak.

e) Hala badagokio, onuradunek edo entitate laguntzaileentzat ezartzen diren bermeen erregimena, haiek eratzeko bideak, gordailuan uztea eta ezereztea.

f) Hala dagokionean, baldintza hau: Subentzionatutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi nahiz grafiko guztietan agertzea Udalak subentzionatuta dagoela.

5. Deialdi bakoitzaren testuak oniritzi juridikoa eduki behar du eta udal zerbitzu juridikoei egindako txosten juridikoa, zuzenbidearekin bat datorrela adierazten duena, itsatsita eduki behar du.

6. Eskarekin batera aurkeztu behar dira deialdian adierazten diren dokumentuak eta informazioak, baldin eta dokumentu horiek ez badauzka lehendik Administrazioak berak. Kasu horretan erantzukizun aitortpena aurkeztu behar da, adieraziz noiz eta zein organotan aurkeztu ziren edo, hala denean, noiz eta zein organok eman zuen, edota zein organotan dauden.

7. Eskerak ez baditu betetzen deialdiko betebeharrak, pertsona interesatuari 10 eguneko epe luzaezina emango zaio bidezko zuzenketak egiteko, eta adieraziko zaio hala ez badu egiten bertan behera utziko dela eskaera, hartarako emandako ebazpenaren bidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, bere 71 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

15. artikulua. Instrukzioa.

1. Norgehiagokako prozeduren instrukzioa hauei dagokie:

a) Ibarako Udalaren eremuan subentzioaren departamentu sustatzaileko funtzionario arduradunari.

2. Instrukzio organoak egokitzen dituen jarduketak egingo ditu ofizioz, zehazteko, jakiteko eta egiaztatzeke ebazpen proposamena formulatzeko oinarrizkoak diren datuak.

3. Instrukzio jardueretan hurrengo jarduketak hauek sartuko dira nahitaez:

a) Eskatzea ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txostenak edota subentzioa erregulatzen duten arauak exijitzen dituztenak. Egiteko epea 10 eguneko izango da, baldin eta instrukzio organoak bestelako eperen batean –handiagoan edo txikiagoan- egitea eskatzen ez badu, kontuan izanda aipamenerako txostenaren ezaugarriak edota prozedura bera. Dena den, azken kasu horretan ezin izango du gainditu bi hilabeteko epea.

b) Eskerak ebaluatzea, subentzioaren arau erregulatuaz, edo, hala badagokio, deialdian ezarritako

irizpide, modu eta lehentasunen arabera.

4. Instrukzio organoak eskaerak ebaluatu eta gero, hartarako eraturako balorazio batzordeak (kide anitzeko organoak) txostena egingo du honako alderdi hauek sartuz bertan:

a) Prozeduran onartutako eskaeren eta subentzioa eskuratzeko baldintza guztiak ez betetzeagatik baztertutakoen zerrenda.

b) Aurkeztutako eskaeren ebaluazio proposamenak hurrengo eduki hau izan behar du:

— Subentzio eskuratzeko aukera luketen pertsona edo entitateen proposamen zerrenda.

— Dirulaguntzaren zenbateko zehatza.

— Ebaluaketaren zehaztapena eta hura egiteko jarraitutako irizpideak.

5. Instrukzio organoak, espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena ikusita, ebazpen proposamena formulatuko du, behar bezala arrazoituta, eta organo eskudunaren eskuetan jarriko da hark erabaki dezan.

6. Ebazpen proposamenak ez du inolako eskubiderik sortuko pertsona edo entitate onuradunen alde Ibarako Udalaren aurrean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten ez zaion bitartean.

16. artikulua. Ebazpena.

1. Ebazpen proposamena hartu eta gero, espedienteko gainerako dokumentazioarekin batera, organo eskudunak prozedura ebatziko du, Udaleko Kontuhartzaitzak fiskalizatu eta gero.

2. Ebazpena egingo da dirulaguntzen ordenantza honetan, oinarri espezifikotan eta deialdian xedatuaren arabera arrazoituta, eta egiaztatuta geratu behar dute prozeduran ebazpenaren oinarriak.

3. Ebazpenean adierazi behar da espresuki gainerako eskaeren ezespena, hala dagokionean; eta, era berean, ezespenerako izan diren arrazoiak.

4. Ebazpenean adierazi behar da espresuki: Subentzioa ematen zaion pertsona edo entitatea, zenbatekoa, ordaintzeko era, justifikatzeko modura eta ordenantza orokorrean eta oinarri espezifikotan ezarritako gainerako baldintza eta betebeharrak.

5. Ebazpena honako xedapen honen arabera jakinaraziko zaie pertsona edo entitate eskatzaileei: Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 58. artikulua. Ebazpenak amaiera emango dio bide administratiboari eta bertan aipatu behar dira jar daitezkeen errekurtsioak.

6. Behin betiko ebazpena ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen den egunetik zenbatuta, baldin eta hark ez baditu atzeratzen bere ondorioak geroagoko data batera. Amaiturik aipatu epea berariazko ebazpena jakinarazi gabe, pertsona edo entitate eskatzaileek euren subentzio eskaerak ezetsitzat jo ditzakete.

7. Pertsona edo entitate onuradunek hamabost eguneko epea dute subentzioari uko egiteko. Aipatu epearen barruan espresuki ezezkorik adierazten ez badute, onartutzat joko da.

8. Konturako ordainketen edo ordainketa aurreratuen kasuan, ezinbestekoa izango da, lehenbiziko ordainketa egin baino lehen, pertsona edo entitate onuradunak espresuki onartzea dirulaguntza.

17. artikulua. Publizitatea.

1. Dirulaguntza emateko ebazpena Ibarako Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da eta bertan adieraziko dira deialdia, programa eta dagokion aurrekontu kreditua, onuraduna, emandako kopurua eta subentzioaren helburua. Era berean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN ebazpenaren laburpen bat emango da

argitara, eta bertan adieraziko da non dagoen ikusgai bere eduki osoa.

2. Halere, ez da beharrezkoa izango argitaratzea, hain zuzen ere, entitate edo pertsona onuradunaren datuak argitaratzea ez badator bat pertsona fisikoaren edo irudiaren ohorea errespetatzearekin edo babestearekin, edota intimitate pertsonal eta familiarren kontrakoa bada, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoak, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoak, xedatua betez.

3. Ibarako Udalak emango edozein dirulaguntzak berarekin eraman ahal izango du honako baldintza hau: Subentzionatutako jardueraren dokumentazioan eta propaganda idatzi edo grafikoan adieraztea Ibarako Udalaren dirulaguntza duela; are gehiago, baita Ibarako Udalaren logotipoa sartzea ere

III. KAPITULUA. -UDAL AURREKONTUAN IZENEZ AURREIKUSITAKO DIRULAGUNTZAK ZUZENEAN EMATEKO ERREGIMEN ETA PROZEDURARENA

18. artikulua. Erregimena.

1. Udal aurrekontuan izenez aurreikusitako subentzioak baldintza hau betetzen dutenak dira: Dirulaguntza-
ren xedea, aurrekontuko zuzkidura eta pertsona edo entitate onuraduna espresuki zehaztuta edukitzea aurrekontuko gastuen egoeran

2. Ibarako Udaleko Udal Aurrekontuan izenez aurreikusitako subentzioen araubidea dirulaguntza emateko ebazpenak eta dagokion hitzarmenak osatuko dute. Haietan egongo dira ezarrita aplikaziozkoak diren baldintzak eta konpromisoak, Ordenantza honekin eta Subentzioen Lege eta Erregelamenduarekin bat etorritz, publizitate eta lehiaren printzipioei dagokienez izan ezik.

3. Hitzarmenaren edukian gutxienez hurrengo alderdi hauek zehaztu behar dira:

- a) Hitzarmeneko partaideak, pertsona edo entitate onuradunaren identifikazio datuekin batera.
- b) Xedearen deskripzioa.
- c) Aurreikusitako jarduketan eta hitzarmeneko aldean konpromisoak.
- d) Subentzioari dagokion aurrekontu kreditua.
- e) Dirulaguntzaren zenbatekoa, eta onuradunak finantzatu behar duen proiektuaren aurrekontuaren ehunekoak, berak zuzenean finantzatuta edo beste subentzio batzuen bidez.
- f) Justifikazio modua, dagokion dokumentazioa aurkezteko epea eta ebaluazio txostenean sartu beharreko alderdiak.
- g) Pertsona edo entitate onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- h) Indarrean egongo den epealdia, betebeharrak eta baldintzak.
- i) Subentzioaren bateragarritasuna eta bateraezintasuna
- j) Hitzarmenaren exekuzioaren segimendurako mekanismoak
- k) Araubide juridikoa.
- l) Hitzarmenaren izaera administratiboa eta administrazioarekiko auzien jurisdikziora makurtzea bere eduki eta aplikazioaren gainean sor daitezkeen auzigaiak.
- m) Hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunak eratu behar dituzten bermeen erregimena, haiek eratzeko bideak, gordailuan uztea eta ezereztea.
- n) Hala dagokionean, baldintza hau: Subentzionatutako jardueraren dokumentazio eta propaganda idatzi

nahiz grafikoan agertzea Udalak subentzionatuta dagoela.

o) Hala badagokio, konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egiteko aukera eta justifikazioa.

19. artikulua. Hasiera.

Subentzioa emateko prozedura ofizioz hasten da, kudeaketa dagokion udal areak egindako proposamenaren bidez. Ezinbestekoa da kontsignazio espezifiko egotea udal aurrekontuan, dirulaguntza dagokion pertsonaren alde.

Udal Aurrekontuan zehaztu egin behar dira dirulaguntza izendunaren pertsona edo entitate onuraduna, zenbatekoa eta kontzeptua (xedeak). Era berean, organo kudeatzaileak justifikatu egin behar du, behar bezala, norgehiagokako printzipioa aplikatzeko ezintasuna.

Aurrekontu partida Udal Aurrekontuan sartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen pertsona edo entitate onuradunaren alde, dirulaguntza emateko erabakia hartu bitartean organo eskudunak, ezarritako prozeduraren arabera.

Era berean, aurrekontu ekitaldi batean subentzio bat kontsignatuta egoteak ez du sortzen igurikimen eskubiderik hurrengo urteetarako.

20. artikulua. Instrukzioa.

1. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa, hain zuzen, subentzioa kudeatzen duen arloko pertsona arduradunari dagokio.

2. Instrukzio jardueretan hurrengo jarduketa hauek sartzen dira nahitaez:

a) Subentzioa erregulatzen duen testua egitea. Testu horrek oniritzi juridikoa eduki behar du eta udal zerbitzu juridikoek egindako txosten juridikoa, zuzenbidearekin bat datorrela adierazten duena.

b) Udal Kontuhartzaitzaren txostena.

c) Instrukzio organoaren txostena, dauzkan datuen arabera pertsona edo entitate onuradunak subentzioa eskuratzeko baldintzak betetzen dituela adierazten duena.

3. Instrukzioa osatuta, dirulaguntza emateko proposamena organo eskudunaren erabakira jarriko da bere onarpenerako.

21. artikulua. Ebazpena.

Ebazpen proposamena bidali eta gero, espedienteko gainerako dokumentazioarekin batera, organo eskudunak ebatzi egingo du dirulaguntza emateko prozedura.

Ebazpena arrazoituko da bat etorri ordenantza honetan eta indarrean dagoen arautegian xedatuarekin eta jakinaraziko zaio pertsona edo entitate onuradunari, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak 58. artikuluan xedatuaren arabera.

22. artikulua. Dirulaguntzaren onarpena.

Dirulaguntzaren onartzea formalizatuko da onartze dokumentu batean edo alde guztien arteko hitzarmena sinatuta.

IV. KAPITULUA. -GAINERAKO DIRULAGUNTZAK ZUZENEAN ETA EZ OHIKO GISAN EMATEKO ERREGIMEN ETA PROZEDURARENA

23. artikulua. Zuzeneko dirulaguntzak.

Modu zuzenean, ez ohiko gisan, eman ahal izango diren dirulaguntzak:

a) Behar bezala justifikatutako interes publiko, sozial, ekonomiko, heziketako, kultural, zientifiko, humanitario edo bestelakoa arrazoiak frogatzen dituzten subentzioak, jasotzailearen ezaugarriengatik norgehiagoka publikoaren aukerarik ez badago, onuradun bakarra edo onuradun talde bakarra dagoelako gaituta subentzioaren xedea gauzatzeko. Kasu horietan, subentzioaren oinarri erregulatzailerik Subentzioen Lege Orokorreko 17. artikulua xedatzen duen edukia izan behar dute, publizitate eta norgehiagoka printzipioei dagokiena izan ezik.

b) Bestelako dirulaguntzak, justifikatuta dutenak zaila dela aplikatzea norgehiagokako printzipioa. Kasu honetan, subentzioaren erabilera, interes soziala eta xede publikoa arrazoitzeaz gainera, justifikatu behar daa espedientearen txosten arrazoitu baten bidez, publizitate eta norgehiagokako printzipioak aplikatzeko zailtasuna.

24. artikulua. Dirulaguntzak zuzenean ematea, onuradunaren izaeratik lehia publikorako aukerarik ez dagoenean, dirulaguntzaren xedea egiteko gaitasuna duen onuraduna edo onuradun taldea bakarra delako.

1. Kudeaketa organoak ofizios irekiko du espedientearen, eta ezinbestekoa da kontsignazio espezifikoa egotea Udal Aurrekontuan, dirulaguntza dagokion pertsona publiko edo pribatuaren alde.

2. Dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa, hain zuzen, subentzioa kudeatzen duen arloko pertsona arduradunari dagokio.

3. Instrukzio jardueretan hurrengo jarduketak hauek sartzen dira nahitaez:

a) Justifikatzea lehia publikorako aukerarik ez dagoela, bakarrik delako dirulaguntzaren xedea gauzatzeko gaitasuna duen onuraduna edo onuradun taldea.

b) Subentzioaren oinarri erregulatzailerik egitea Subentzioen Lege Orokorreko 17. artikulua xedatzen duen edukiarekin, publizitate eta norgehiagoka printzipioei ukitzen dien hartan izan ezik.

c) Ebazpen proposamena egitea, dauzkan datuen arabera pertsona onuradunak subentzioa eskuratzeko baldintzak betetzen dituela adierazten duena.

d) Udal Kontuhartzaitzaren txostena sartzea.

4. Instrukzioa osatuta, dirulaguntza emateko oinarriak eta proposamena organo eskudunaren erabakira jarriko da bere onarpenerako.

5. Aurreko artikuluan xedatuaren arabera ematen diren subentzioak antolatuko dira, oro har, hitzarmenetan; eta horietan zehaztuko dira baldintzak eta estipulazio espezifikokoak.

25. artikulua. Dirulaguntzak zuzenean ematea, justifikatuta dagoenean zaila dela aplikatzea norgehiagokako printzipioa: Banakako ebaluazioko erregimena.

1. Banakako ebaluazioa: Subentzioa zuzenean emateko prozedura, non espedienteak tramitatu eta ebatziko diren aurkeztu ahala eta hartarako aurrekontu kreditua dagoen bitartean.

2. Dirulaguntzak emateko erregimen honetan, aurrekontu kreditua agortu eta eskaerarik badago erantzun gabe, organo eskudunak erabaki lezake subentzioen aurrekontu partida handitzea, ebatzi gabekoei erantzun ahal izateko.

3. Deialdiren batean ebatzi ez diren subentzio eskaerak, krediturik ez dagoelako, hurrengora eraman ahal izango dira. Han lehentasuna izango dute beren tramitazioak.

4. «Banakako ebaluazio» erregimenarentzat aplikagarriak izango dira norgehiagokako prozedura arauak, «norgehiagoka»ren ezaugarriei dagozkien alderdietan eta exijentzietan izan ezik, subentzio mota honen

izaera bereziagatik aplikatu ezinak direnean.

5. Erregimen berezi honetan ez da derrigorrezkoa kide anitzeko organoa eratzea (balorazio batzordea). Horrela, instrukzio organoari dagokio eskaeren ebaluazioa egitea, deialdian ezarritako balorazio irizpide, modu eta lehenetsuen arabera.

26. artikulua. Ebazpena.

Instrukzioa osatuta eta Udal Kontuhartzaitzaren txostena aurretik dela, subentzioak emateko proposamena ordenantza honetan ezarritako organo eskudunaren onespenera jarriko da.

27. artikulua. Publizitatea.

1. Emandako dirulaguntzak Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko dira, eta hori agintzen duen ebazpenaren laburpen bat Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Iragarkia hilabete batean egongo da jarrita, ebazpena Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

2. Emandako subentzioak ez dira argitara emango, hain zuzen ere, subentzioaren xedeagatik entitate edo pertsona onuradunaren datuak argitaratzeak suposatzen badu ez dela errespetatzen edo babesten pertsona fisikoen edo norberaren irudiaren ohorea eta intimitate pertsonal eta familiarra, maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzkoan, xedatuaren arabera.

III. TITULUA

UDAL DIRULAGUNTZEN KUDEAKETA ETA JUSTIFIKAZIOAREN PROZEDURARENA

I. KAPITULUA. -GASTU SUBENTZIONAGARRIAK, AZPIKONTRATATZEA ETA FINANTZAKETA

28. artikulua. Gastu subentzionagarriak.

1. Gastu subentzionagarriak hauexek dira: Subentzionatutako jardueraren izaerari dagozkionak izan eta dirulaguntzen oinarri espezifikoek, deialdiek edo hitzarmenek ezarritako epearen barruan egiten direnak. Gastu subentzionagarrien kostua ez da izango inolako kasutan ere merkatuko balioaren gainekoa.

2. oinarri erregulatzailerik, deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak besterik ezartzen ez badu behintzat, egindako gastua hauexek izango da: Oinarri erregulatzaileretan, deialdian edo hitzarmenean zehaztutako justifikazio epea bukatu baino lehen benetan ordaindutako gastua.

3. Gastu subentzionagarriaren zenbatekoa, obra exekuzioaren kasuan, 30.000 eurotik gorakoa denean, edo 12.000tik gorakoa, aholkularitza edo asistentzia teknikoko enpresek egindako ondasun horniketa edo zerbitzu prestazioen kasuan, entitate edo pertsona onuradunak eskatu behar ditu gutxienez hiru eskaintza, hornitzaile desberdinenak, zerbitzu prestazio edo ondasun horniketarako konpromisoa onartu baino lehen, baldin eta ez bada gertatzen gastu subentzionarrien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez egotea behar adina entitate dagokion horniketa egiteko edo zerbitzua emateko, edo gastua subentzio eskaera egin baino lehen eginda egotea.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu egin behar dira justifikazioa egiterakoan edo, hala badagokio, eskaera egiterakoan, eta haien arteko hautaketa eraginkortasun eta ekonomia irizpideen arabera egin behar da. Bestalde, aukeratutako eskaintza ez bada ekonomikoki onena, txosten batean justifikatu egin behar da egindako hautaketa hori.

4. Ondasun inbentariagarrien erosketa, eraiketa, birgaitze eta hobekuntza kasuetan hurrengo arau hauei

jarraitu behar zaie:

a) Oinarri erregulatzaileretan, deialdian edo hitzarmenean zehaztuta agertu behar du ondasunak zenbat denboran destinatatu behar dituen entitate edo pertsona onuradunak subentzioa emateko xede konkretura. Ondasunak inskribagarriak badira erregistro publiko batean, epealdia bost urtekoa izango da gutxienez; eta gainerako ondasunen kasuan, bi urtekoa.

Erregistro publiko batean inskribagarriak diren ondasunen kasuan, zirkunstantzia hori eta emandako subentzioaren zenbatekoa jaso egin behar dira eskrituran. Alderdi horiek, era berean, dagokion erregistro publikoan inskribatuta geratu behar dute.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako destino epea ez betetzeak –eta hori hala izango da beti ondasuna baimenik gabe besterentzen bada edo grabamena ezartzen bada– subentzioaren itzulketa kausa izango da, Subentzioen Lege Orokorrean ezarritako terminoetan, eta ondasuna itzulketaren ordainketari lotua geratuko da, edozein izanda ere ondasuna daukana, baldin eta ez badu erregistroko fede publikoaren babes edo justifikatzen ondasunen erosketa fede onarekin eta bidezko tituluarekin edo merkataritza edo enpresa establezimenduan, inskribaezin diren ondasun higiezin kasuan.

5. Aurreko paragrafoan adierazitako destino obligazioa ez da bete gabetzat hartuko honelakoetan:

a) Erregistro publiko batean inskribaezinak diren ondasunak izanik, baldintza berdintsuetan subentzioaren xederako baliagarriak diren beste batzuekin ordezkatzeko direnean eta erabilera horrekin jarraitzen bada ezarritako epea bukatu arte, baldin eta ordezkapen hori baimentzen badu subentzioa ematen duen Administrazioak.

b) Erregistro publiko batean inskribagarriak diren ondasunak izanik, destino aldaketa, besterentzea edo grabamena subentzioa ematen duen Administrazioak baimentzen badu. Kasu horretan, ondasunak eskuratzen dituenak beregain hartuko du ondasun horien destino obligazioa geratzen den epealdirako, eta hura betetzen ez bada, subentzioa itzultzekoarena.

6. Amortizazio gastuak subentzionagarriak izan daitezke hurrengo egoera hauetan:

a) Subentzioek ez badute lagundu ondasunen erosketan.

b) Amortizazioa kalkulatzeko oro har onartzen diren kontabilitate arauarekin bat etorritik.

c) Kostua bakarrik epealdi subentzionagarriari lotua egotea.

7. Finantza gastuak, aholkularitza juridikoaren edo finantzarioaren gastua, notario gastuak eta erregistrokoak eta gastu perizialak, subentzionatutako proiektua egiteko, eta administrazio espezifikoiari dagozkionak subentzionagarriak izango dira, baldin eta zerikusi zuzena badute subentzionatutako jarduerarekin eta ezinbestekoak badira hura behar bezala prestatzeko edo exekutatzeko.

Ez dira inolaz ere subentzionagarriak izango gastu hauek:

a) Banku kontuetako interes zordunak.

b) Interesak, errekaratuak eta administrazioa zigorrak eta zigor penalak.

c) Prozedura judizialen gastuak.

d) Udal zergak, legeak aurreikusten ez dituen salbuespen fiskalak diren heinean, edota tokiko ogasunarekin dituen zorren murrizketak edo konpentsazioak.

8. Tokikoak ez diren zergak gastu subentzionagarriak izan daitezke, baldin eta dirulaguntzaren pertsona edo entitate onuradunak zuzenean ordaintzen baditu haiek. Ez dira inolaz ere subentzionagarriak izango honako gastu hauek:

a) Zeharkako zergak, errekuagarriak edo konpentsagarriak izan badaitezke.

Zehazki, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionez, gastu subentzionarioak izango dira bakar-bakarrik onuradunak ordaindutako kopuruak, benetako kostuarenak diren heinean, hau da, pertsona edo entitate onuradunak benetan ordaindu dituenak, eta kengarri ez dena. Izan ere, kengarria bada, zerga hori errekuaratu egin lezake pertsona edo entitate onuradunak, eta hori justifikatu egin behar du frogatzeko moduren batean.

b) Errentaren gaineko zerga pertsonalak.

9. Zeharkako kostuak subentzionarioak jarduerari inputatu behar dizkio pertsona edo entitate onuradunak, dagokion eta bidezkoa den zatian, aintzat hartuta oro har onartutako kontabilitate arauak eta printzipioak eta, kasu guztietan, aipameneko kostuak jarduera gauzatzen den epealdikoak diren heinean.

29. artikulua. Azpikontratazioa.

1. Onuradun batek azpikontratatu du, hain zuzen ere, hirugarren batekin itzartzen duenean subentzionarioaren xede den jardueraren exekuzio osoa edo partziala. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da, aldiz, pertsona edo entitate onuradunak egiten dituen gastuen kontratazioa, diruz lagundutako jarduera berak zuzenean aurrera eraman ahal izateko.

2. Azpikontratazioa onartu egingo da, baldin eta ez badute espresuki galarazten subentzionarioaren oinarri erregulatuak, deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak. Pertsona edo entitate onuradunak hirugarren batekin azpikontratatu duen gehienezko jarduera portzentajea subentzionarioaren oinarri erregulatuak, deialdi, ebazpen edo hitzarmenean ezarrita egongo da. Horietan aipamenek ez badu egiten, azpikontratazioaren gehienezko portzentajeak ezin izango du gainditu dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 50.

Ezin da azpikontratatu subentzionarioaren jardueraren kostua handitzen duen jarduerarik, baldin eta ez badio haren edukiari baliorik erantzen.

3. Hirugarren batzuekin azpikontratatuak jarduerak subentzionarioaren zenbatekoaren ehuneko 20 gainditzen badu eta 60.000 eurotik gorakoa bada, kontratua idatziz egitea exijituko da eta hark alde aurretik Udalen honen onarpena beharko du.

4. Ezin izango da kontratu bat zatikatu, haren zenbatekoa murriztu eta aurreko atalean exijitutako baldintzak ez betetzeko.

5. Kontratatutako pertsona edo entitate onuradunaren aurrean bakarrik geratuko dira obligatuta, eta onuradunak beregain hartuko du subentzionarioaren jardueraren exekuzioaren gaineko erantzukizun osoa Administrazioaren aurrean.

6. Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunaren erantzukizuna izango da hirugarrenekin hitzartutako jarduera subentzionarioaren gauzatzean errespetatzea oinarri erregulatuak, deialdi, hitzarmen edo ebazpenean ezarritako mugak, gastu subentzionarioaren izaera eta zenbatekoak; eta kontratatutako lagundu beharra dute, aipameneko mugak betetzen direla egoki egiaztatzeko modua egon dadin.

7. Onuradunak inolaz ere ezin izango du hitzartu jarduera subentzionarioaren exekuzio osoa edo partziala pertsona edo entitate hauekin:

a) Subentzionarioen 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua xedatutako debekuren bat duten pertsona edo entitateak.

b) Kontratazioaren xede den jarduera gauzatzeko beste dirulaguntzaren bat jaso duten pertsona edo entitateak.

c) Artekari edo aholkulariak, eragiketaren kostu osoaren portzentaje bat direnean ordainketak, baldin eta aipatu ordainketa justifikatuta badago egindako lanaren edo emandako zerbitzuaren merkatuko balioa erreferentzia bezala hartuta.

d) Onuradunarekin lotura duten pertsona edo entitateak, baldin eta ez daude tartean hurrengo zirkunstantzia hauek:

— Kontratazioa merkatuko baldintza normaletan egin egotea.

— Subentzioa ematen duen organoaren baimena aldeztatik edukitzea.

e) Deialdi eta programa berean laguntza edo subentzio eskaera egin duten pertsona edo entitateak, baina subentzioa lortu ez dutenak baldintzak betetzen ez dituztelako edo behar adinako baloraziora iritsi ez direlako.

30. artikulua. Jarduera subentzionagarrien finantzaketa.

1. Subentzioaren oinarri erregulatuak, deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak exijitu ahal izango du onuradunak berak finantzatzeko zenbateko edo portzentaia bat erabiltzea subentzionatutako jarduerari erantzuteko. Aipameneko finantzazioaren zenbatekoa, jatorria eta subentzionatutako jarduerara aplikatzen dela justifikatu egin behar da.

2. Subentzioaren oinarri erregulatuak, deialdi, hitzarmen edo ebazpenean zehaztuko da bateragarritasun edo bateraezintasun erregimena, helburu bererako bestelako subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideak eskuratzeko edozein entitate, pertsona edo Administrazioetatik, hurrengo atalean xedatzen denaren kalterik gabe.

3. Subentzioen zenbatekoak ezin izango du inongo kasutan gainditu, bakarrik edo beste subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera, subentzionatutako jardueraren kostua.

4. Dirulaguntza emateko aintzat hartutako baldintzak aldatuz gero, eta, kasu guztietan, bestelako ekarpenik eskuratu gero, oinarri erregulatuak, deialdi, hitzarmen edo ebazpenak baimendutako kasuetatik aparte, aldatu ahal izango da dirulaguntza emateko ebazpena.

5. Pertsona edo entitate onuradunei libratutako funtsek sortzen dituzten errendimendu finantzarioek areagotu egingo dute emandako subentzioaren zenbatekoa eta subentzionatutako jarduerari aplikatuko dira era berean, baldin eta kontraktorik ez bada xedatzen subentzioaren oinarri erregulatuak edo deialdian.

Atal hau ez da aplikaziorik izango da onuraduna Administrazio publikoa bada.

6. oinarri espezifikoak, deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak hala xedatzen badu, proiektuan aldaketak egin ahal izango dira, aurreikusi ez diren zirkunstantzien ondorio bezala. Kasu horretan, kudeaketaz arduratzen den udal arloak bere balorazioa egin eta gero, organo eskudunak onartu beharko ditu.

7. Benetako defizita edo gastuak ez badira iristen eskaera egindakoan gauzatutako aurrekontuetan jarritakora, zeinen arabera erabaki zen hasiera batean subentzioaren kopurua, kontuan hartuko da zirkunstantzia hori bukaeran ordaindu behar den zenbatekoa proportzionalki murrizteko.

II. KAPITULUA

AURREKONTUAREN KUDEAKETA PROZEDURA

31. artikulua. Gastuaren onarpena.

1. Organo eskudunak dirulaguntzen deialdia egin edo dirulaguntzak esleitu baino lehen gastuaren baimena onartu beharko da, aurrekontuen arloan aplikagarri den legediarekin bat etorritik.

2. Dirulaguntzak esleitzeko edo hitzarmenak onartzeko ebazpenekin batera dagokion gasturako konpromisoa edo eskuragarritasuna ere onartzen da.

3. Zuzenean esleitzeko dirulaguntzen kasuan, aurrekontuen aurreko faseak pilatu ahalko dira.

32. artikulua. Dirulaguntzaren ordainketa.

1. Dirulaguntza ordaindu baino lehen onuradunak dirulaguntza jaso duen jardueraren, proiektuaren, helburuaren edo jarrera jasotzeko ziurtagiria aurkeztu beharko du, Ordenantza honetan, oinarri zehatzetan eta deialdian, hitzarmen arautzailean edo horren ebazpenean jasotako baldintzen arabera.

Ziurtagiri egokia aurkezten ez bada, edo azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikuluan azaldutako kausaren bat jazoz gero, dirulaguntza osorik zein dirulaguntzaren zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.

2. Dirulaguntzaren izaerak hala justifikatuz gero, konturako ordainketa bidez ordainduko da. Ordainketa zatituetan ordaindu ahalko da, eta dirulaguntza jaso duten jarduerak bete ahala ordainduko dira: Aurkeztutako justifikazioari dagokion zenbatekoa ordainduko da aldi bakoitzean.

Ordainketak aldeztatik ere egin ahal izango dira, ziurtagiriaren aurretik funtsak ematea, alegia, dirulaguntza jaso duten jardueran burutzeko beharrezko finantzazio gisa; 1.000 euroko kopurura iristen ez diren jarduerak atal honetatik salbuetsita egongo dira.

Konturako ordainketa posibleak zein aurrerakinak dirulaguntzaren deialdian dagozkien oinarri arautzaileetan eta hitzarmen arautzailean jasota egon beharko dira.

Aurretiazko ordainketak eginez gero, bermeak aurkeztea eskatu ahalko da, gordailuen, abalen, kaudio-aseguruen edo berme pertsonalen eta elkartasunezko bermeen bitartez, zein bermeen eskubide errealeen bitartez, eta indarrean dauden oinarri arautzaileetan jasota egon beharko dute; dirulaguntza bakoitzaren deialdian eta oinarri arautzaileetan edo hitzarmenean zehaztuta egon beharko da. Berme horiek nahitaez 60.000 euro baino gehiagoko aurrerakinaren kasuan finkatu beharko dira, pertsona edo entitate onuraduna Sektore Publikoa osatzen duen erakundea bada izan ezik.

3. Edozein kasutan ezingo zaie pertsona edo entitate onuradunei ordainketa aurreraturik egin lehiaketara deitzea eskatzen denean, edozein prozeduratan kaudimengabeziatzat jotzen badute, lehiaketan badaude, esku-hartze judizialen mende badaude edo Lehiaketa Legearen arabera desgaitu badituzte, lehiaketa aitortzeko epaian finkatutako desgaitasun epea ez bada bukatu, galera egoeran badaude, hartzekodunen lehiaketan badaude, edozein prozeduratan kaudimengabeziatzat jo badituzte edo esku-hartze judizialen mende badaude, kendu eta itzaroteko txostena hasi badute edo ordainketak eten badituzte edo porrotaren edo hartzekodunen lehiaketa eskaera judiziala aurkeztu badute, hala badagokio, desgaitu ez badira.

4. Pertsona edo entitate onuradunak ez baditu zerga eginbeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak bete, ezingo da dirulaguntza ordaindu, dela diru-sarreraren jatorriगतिको ebazpenagatik zorduna delako, dela Udalarekin arautu gabeko beste edozein motatako zorra duelako.

III. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

33. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa.

1. Ezarritako baldintzak betetzen direla eta dirulaguntza ematerako orduan aurreikusitako helburuak bete direla justifikatzea ordenantza honetan jasotako baldintzekin egingo da, oinarri arautzaileek, dirulaguntzaren deialdia edo kolaborazio hitzarmenak erregimen espezifikoak ezartzen badute izan ezik, eta horren edukiarekin bateraezina ez denean.

2. Dirulaguntza ematen duen erakundearen aurrean aurkeztu beharko da aipatutako justifikazioa. Dirulagun-

tzak justifikatzeko modua oinarri arautzaileetan zehaztuko da, dirulaguntzaren deialdian edo lankidetzaz hitzarmenaren testuan, eta modu hauetako batean osatu beharko da:

a) Egindako gastua justifikatzen duen kontua.

— Gastua justifikatzen duten ziurtagiriak.

— Auditorearen txostena aurkeztea.

— Sinpletua.

b) Gastua moduluka akreditatzea.

c) Kontabilitate egoerak aurkeztea.

Erabili beharreko justifikazio-modua ez bada oinarri arautzaileetan, deialdian, hitzarmenean ez eta ebazpenean jasotzen, kontu justifikagarriaren ematean aplikatuko da.

3. Hartzailearen egoera zehatz bategatik emandako dirulaguntzek ez dute beste justifikaziorik eskatuko, eman aurretik egoera horren zuzenbidean oinarritutako edozein modu izango da baliagarri; egoera horiek gertatzen direla egiaztatzeko kontrolak finkatu ahalko dira. Hortaz, justifikazioa ez da dirulaguntza emateetik eratorritako karga edo betebeharrat; aitzitik, dirulaguntza emateko baldintzetako bat izango da.

4. Dirulaguntzaren justifikazioaren eginbeharra betetzen ez bada edo ez bada modu nahikoan justifikatzen, Dirulaguntzen Legeko 37. artikuluan aurreikusitako baldintzetan jasotako itzulketa gertatuko da.

34. artikulua. Justifikazioa, egindako gastuaren kontu-arrazoiak emanez.

1. Dirulaguntza eman duen erakundearen aurrean aurkeztu beharreko kontu justifikagarria pertsona edo entitate onuradunaren edo erakunde kolaboratzailearen betebeharrat da, eta gastu edo diru-sarrera guztiak justifikatu behar dira (urteko jarduerak egiteko dirulaguntzen kasuan) edo diruz lagundutako jarduera bat edo programa zehatz baten gastu guztiei dagozkienak, hau da, ez soilik dirulaguntzaren zenbatekoa lortu arte (jarduera edo programa jakin bat egiteko dirulaguntza ematen den kasuetan), aitortzailearen erantzukizunpean, horren ziurtagiri zuzenekin. Gastuak fakturekin eta froga daitekeen balioa duten gainerako dokumentuekin justifikatuko dira, dirulaguntzaren objektua bete dela finkatzeko balioa duten eta zirkulazio juridikoan baliagarriak edo administratiboki eraginkorrak direnak.

2. Kontu justifikagarria dokumentu hauek osatuko dute:

a) Jardueren Memoria, dirulaguntza jaso duen betetako ekintzarena; dirulaguntzarekin finantzatutako jardueren azalpen zehatua eta kostua jaso beharko ditu.

Memoriak, gutxienez, atal hauek izango ditu:

— Programaren edo proiektuaren izena.

— Dirulaguntza ematearen helburua, aurkeztutako aurrekontuaren eta proiektuaren arabera.

— Gauzatutako jarduerak, proposatutako helburuak eta lortutako emaitzak deskribatzea.

— Proiektua edo jarduera garatzean egindako aldaketak.

— Finantza baliabideen zerrenda: Dirulaguntzarekin finantzatutako jardueren deskribapena eta kostua, baita beste dirulaguntza batekin edo onuradunaren diruarekin finantzatutako beste jarduera batzuen ere.

— Objektibagarriak diren heinean, pertsona onuradun-eskatzaileen datuak sexuaren arabera bereizita, baldin eta horrelaxe adierazten bada dagozkien oinarrietan.

— Ondorioak.

b) Memoria Ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatuko duena; gutxienez dokumentu hauek bilduko ditu:

— Diruz lagundutako jardueren diru-sarreraren eta gastuen balantzea, erakundearen idazkariak sinatutakoa eta dagokion zigiluarekin.

— Izandako gastuak eta lortutako diru-sarreraren zerrenda ordenatua eta sekuentzialki zenbatutakoa, kontzeptu antolatuta eta emaitzak guztira islatzen dituen. Gastuen zerrendak hau jasoko du:

— Hartzekodunaren identifikazioa.

— Dokumentuaren identifikazioa.

— Zenbatekoa.

— Igorpen data.

— Ordainketa data.

— Merkataritza zirkulazio juridikoan baliokide diren fakturak edo dokumentuak, edo administratiboki eraginkorrak direnak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotzen direnak, eta hala badagokio, ordainketaren dokumentazio akreditatiboa. Dokumentu horien fotokopiak aterako dira eta konpultsatu egingo dira; kudeaketa zerbitzuak berretsiko ditu eta jatorrizko dokumentuak interesatuei itzuliko zaizkie. Jatorrizko dokumentuak edo kopia konpultsatuak erakunde onuraduneari geratuko dira gutxienez lau urtez.

— Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren eta dirulaguntzen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

Aurreko guztiaz gain, gastuei dagokienez eskakizun hauek ere bete beharko dira:

— Fakturak ematen dituen erakunde bat BEZetik salbuetsita badago, salbuespen hori dagoela berresten duen erakunde eskudunak emandako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da.

— Langileei dagozkien gastuak soldata-gastu gisa justifikatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira: Lan kontratuen kopiak, hartzaileek sinatutako dagozkien nomina ordainduak, edo hala badagokio, bankuko abonu-agiria, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu izanaren ziurtagiriak.

— Hartzekodunen ordainketa ziurtagiria banku zordunketa bidez egin beharko da, modu zuzenean sinatutako «jaso agiria», edo aurkeztutako fakturak ordaindu izanaren beste dokumentu-ziurtagiri bat.

c) Balioespen txostena udal langile-teknikari eskudunek idatzitakoa; dokumentuan argi azalduko da dirulaguntzaren objektua erabat bete dela, edo justifikazioa onartu ezin duten gabeziak edo egoerak daudela. Inbertsioetarako dirulaguntzen kasuan, egindako egiaztapen materialaren emaitza jasotzen duen akta edo txostena.

35. artikulua. Ondasun higiezinak eskuratzeko dirulaguntzen justifikazioa.

Aurreko artikuluan finkatutako kontu justifikagarriekin eta horretan finkatutako ziurtagiriekin batera, tasa-tzaile independente baten ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, dagokion erregistro ofizialean izena eman duena eta akreditazio egokiak dituen, merkatuko kostu eta prezioaren arabera.

Horrez gain, Ondare Eskualdaketaren Zergaren likidazioa ere aurkeztu beharko da, eskuratu izanaren zenbatekoarekin bat etortzea jasotzen duena.

36. artikulua. Justifikazioa modulu bidez.

1. Moduluen erregimena, dirulaguntzen objektua unitateetan neur daitezkeen jarduerak bete izana ziurtatzen den kasuetan aplikatu ahalko da.

2. Dirulaguntzak modulu bidez justifikatzea, oinarri arautzaileetan, dirulaguntzen deialdian edo lankidetzahitzarmenean hala ezarriz gero bakarrik aplikatuko da.

Kasu horretan, oinarri arautzaileek, deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak finkatuko ditu modulua osatuko duten unitateak, unitate bakoitzaren kostua eta dagozkien beste muga batzuk ere.

37. artikulua. Justifikazioa, kontabilitateko egoera orriak aurkeztuz.

Helburu generikoei zuzendutako funtsen kasuan, (elkarte bati eustea, edo haren jarduerak generikoki kudeatzea) edo ustiaketaren defizitak estaltzera bideratutako dirulaguntzen kasuan, kontuak edo finantza egoerak aurkeztea nahikoa izango da, baldin eta dokumentu horiek defizita islatzen badute edo diruz lagundutako jarduera edo programaren zati bat gauzatu izana jasotzen bada, onuradunari dirulaguntza ordaindu ahal izateko.

Ordenantza honen ondorioetarako, kontu edo finantza egoera bezala ulertuko dira erakunde bakoitzari dagozkion organoek modu egokian frogatutakoak eta ofizialak direnak.

Horrek ez du eraginik izango finantza kontrolaren funtzioan edo, hala izanez gero, auditoretza pribatua eskatzean.

38. artikulua. Entitate laguntzaileek kudeatutako dirulaguntzen justifikazioa.

Entitate kolaboratzaileek kudeatutako dirulaguntzen justifikazioak erreferentzia egiten die pertsona edo entitate onuradunari dagozkien funtsak entregatu izanaren akreditazioari zein pertsona edo entitate onuradunek justifikazioa erakunde emailearen aurrean aurkezteari; azken hori ez da soilik funtsen aplikazioari hedatuko, baita kobratzeko baldintzak betetzeari ere, lankidetzahitzarmenean adostutakoaren arabera.

Erakunde kolaboratzailea, halaber, erakunde emaileak ados ditzakeen udal funtsen kudeaketari dagokionez, frogatzeko edozein jarduera egitera behartuta egongo da, baita beste egiaztapen eta finantza kontrolerako ere, eta aipatutako jarduerak gauzatzearan eskatzen zaion edozein informazio eman beharko du.

39. artikulua. Justifikatzeko epea.

Oinarri arautzaileek, dirulaguntzaren deialdiak, eta hala badagokio, lankidetzahitzarmenak edo ebazpenak, dirulaguntzak justifikatzeko emate-epea finkatuko dute.

Dirulaguntza justifikatzeko epea ez bada oinarri arautzaileetan aipatzen, ezta deialdian eta lankidetzahitzarmenean edo ebazpenean ere, gehienez hiru hilabetekoa izango da jarduera betetzeko epea bukatzen denetik zenbatzen hasita.

40. artikulua. Justifikatzeko eginbeharra ez betetzearen ondorioak.

Dirulaguntza justifikatzeko eginbeharra ez bada betetzen, edo modu desegokian betetzen bada, zenbateko osoa edo horren zati bat itzuli beharko da, betetze-mailaren eta gainerako ezaugarrien arabera.

41. artikulua. Dirulaguntzen egiaztapena.

1. Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa epe barruan eta oinarri arautzaileek, deialdiak, hitzarmenak edo ebazpenak adierazitako lekuan aurkeztu ondoren, hurrengo urrats hauei ekingo zaie:

1. Kudeaketa zerbitzuak materialki frogatu beharko du aurkeztutako dokumentazioak Ordenantza honek, oinarri arautzaileek, dirulaguntzaren deialdiak, lankidetzahitzarmenak edo ebazpenak finkatutako

eskakizunak betetzen dituela.

2. Udal arlo kudeatzaileak dirulaguntzaren objektua bete izana berresten dela adieraztea, edo hala badagokio, horren txostena ematea.

Txosten horrek udal ekarpena jaso behar du, eta hala badagokio, pertsona edo entitate onuradunak eman dituen gainerako baliabideak ere; datu horiek onuradunak jardueraren memorian ere jaso beharko ditu.

Halaber, txosten horrek pertsona edo entitate onuradunak aurkeztutako gastuen eta diru-sarreraren justifikazioaren balioespena bilduko du.

3. Txosten osoa Udal Kontuhartzaile zerbitzuari igorriko zaio, dagokion fiskalizazio txostena igor dezan. Fiskalizazio horrek aurretik mugatutako kontu-hartzaile zerbitzutik eratorritako irismena izango du, eta, gainera, aurkeztutako justifikazioarekin bat datorren txostena existitzen dela frogatuko du.

2. Justifikazio hori fiskalizatu ondoren erakunde eskudunak onartu egin beharko du, eta horrek emango du, hain zuzen ere, dirulaguntza.

3. Dirulaguntzen konturako ordainketak finkatuz gero, eta horiek aurkeztutako justifikazioaren zenbateko berdinen zatikako ordainketa gisa hartzen badira, justifikazio hori dirulaguntza osorako egingo den modu berean egin beharko da eta indarrean dagoen araudian justifikazioari dagokionez aurreikusitako betekizun berekin.

IV. TITULUA

ITZULKETAK

I. KAPITULUA. DIRULAGUNTZEN ITZULKETA

42. artikulua. Dirulaguntza emateko ebazpenaren baliogabetasuna.

1. Arrazoi hauek esleipen ebazpena baliogabetzea eragingo dute:

a) azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 62.1 artikuluan jasotakoak.

b) Aurrekontuen araudian ezarritakoaren arabera, krediturik ez izatea edo nahikoa ez izatea.

2. Esleipen ebazpena baliogabetzeko kausa dira ordenamendu juridikoko gainerako arau-haustea, eta bereziki Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako arauak, lehenago aipatutako 30/1992 Legearen 63. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

3. Dirulaguntzak emateak aurreko ataletan aipatutako kasuren bat urratzen badu, organo emaileak ofiziozko ikuskapena egingo du, edo hala badagokio, kaltegarritzat deklaratu du eta ondoren inpugnazioa aurkeztuko du, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 102 eta 103. artikuluetan finkatutakoaren arabera.

4. Dirulaguntza eman izana baliogabetzen bada edo baliogabetze aitorten judiziala edo administrazioarena jasotzen badu, jasotako zenbatekoa itzuli beharko da.

5. Dirulaguntza eman izana ez da ofizioz ikuskatuko hurrengo artikuluan jasotako itzultze kausaren bat urratzen badu.

43. artikulua. Itzultzeko eta ordainketak atxikitzeko arrazoiak.

1. Kasu hauetan jasotako zenbatekoa osorik edo horren zati bat itzuli beharko da, eta dirulaguntza ordaindu denetik itzultzea erabaki arteko berandutza-interesak eskatu beharko dira:

- a) Dirulaguntza jasotzeko eskatutako baldintzak faltsutzea edo dirulaguntza ez emateko baldintzak ezkutatzea.
- b) Dirulaguntza jasotzeko helburua, jarduera edo proiektua ez betetzea, osorik edo zati batean, edo dirulaguntzaren objektu zen jarrera ez izatea.
- c) Justifikatzeko eginbearra ez betetzea edo nahikoa ez izatea.
- d) Finantza arloa egiaztatzeari eta kontrolatzeari aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopatzea edo ukatzea, edo kontabilitate, erregistro edo dokumentuak gordetzeko eginbeharrak ez betetzea, horien bitartez jasotako zenbatekoari emandako erabilera, helburua betetzea, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta maiztasuna egiaztatzea ezinezkoa denean, edo edozein Administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutik helburu berari zuzendutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak elkartzen direnean.
- e) Administrazioak erakunde kolaboratzaileei eta onuradunei ezarritako eginbeharrak eta haiek hartutako konpromisoak ez betetzea, dirulaguntza ematearen oinarrian dauden helburuak, egin beharreko jarduera, gauzatu beharreko proiektua edo izan beharreko jarduera lortzeko moduari eragiten diotenean.
- f) Finantza arloa egiaztatzeari eta kontrolatzeari aurre egitea, aitzakiak jartzea, oztopatzea edo ukatzea, edo kontabilitate, erregistro edo dokumentuak gordetzeko eginbeharrak ez betetzea, horien bitartez jasotako zenbatekoari emandako erabilera, helburua betetzea, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta maiztasuna egiaztatzea ezinezkoa denean, edo edozein Administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutik helburu berari zuzendutako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak elkartzen direnean.

Ç

- g) Jardueraren dokumentazioan eta propagandan Udal honen laguntza jaso duela dioen publizitate- eta hedapen-neurriak hartzeko eginbearra ez betetzea, baldintza hori ezarriz gero.
- h) Dirulaguntzen Lege Orokorrean aurreikusitako gainerako kasu guztiak.

2. Pertsona edo entitate onuradunak, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzailearen betetze-maila erabateko betetzera modu nabarmenean gerturatzeko denean, eta konpromisoak betetzera bideratutako jarrera argia egiaztatzen badute, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasunaren irizpidea aplikatzeak zehaztuko du; hortaz, pertsona edo entitate onuradunak diruz lagundutako jardueraren betetzearen ehunekoari dagokion dirulaguntzaren zatia jasoko du, aurretiaz erakunde emaileak txostena hasi ondoren.

3. Halaber, diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen duten dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak elkartuz gero, diruz lagundutako jardueragatik jasotako gehiegizko zenbatekoa itzuli beharko da, baita dagozkion berandutze-interesak ere.

44. artikulua. Itzuli beharreko kredituaren izaera.

1. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru-sarrera gisa hartuko dira, eta kobratzeko Aurrekontuen Lege Orokorrean aurreikusitakoa aplikatu beharko da.

2. Jasotako zenbatekoak itzuli behar izanez gero, berandutza interesak ere eskatu beharko dira; interes horiek diruaren legezko interesak izango dira, % 25 areagotuz, salbuespen batekin: Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak beste bat finkatzea, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzultzea erabakitzen den unera arte.

3. Dirulaguntzak itzultzeko eskaerek beti administrazio izaera izango dute.

45. artikulua. Preskripzioa.

Itzulketa onartzeko edo likidatzeko eskubidea lau urteren buruan preskribatuko da. Epea neurtzea eta preskripzioa etetea azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 39. artikuluan finkatutakoaren

arabera egingo da.

46. artikulua. Itzultzera behartuak.

1. Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan pertsona edo entitate onuradunek eta erakunde kolaboratzaileek jasotako zenbatekoak osorik edo horien zati bat itzuli beharko dute, berandutza-interesekin batera. Horrez gain, kasu bakoitzean eska daitezkeen zigorrak ere ordaindu beharko dituzte.

2. Itzultzeko betebeharrari modu subsidiarioan erantzungo diote merkataritza sozietateen administratzaileek, edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkariak legala duten pertsonak, urratutako eginbeharrak betetzeko haien ardurapean zituzten lanak egiten ez zituztenak, ez betetzea ahalbidetzen zuten hitzarmenak hitzartzen zituztenak edo haien mende zituztenek hori egitea baimentzen zutenak.

Horrez gain, aplikatu beharreko lege xedapenen edo estatutuen arabera, jarduera eten duten pertsona juridikoen ordezkariak legala dutenek itzulketa eginbeharren edozein kasutan modu subsidiarioan erantzungo dute.

3. Sozietate edo entitate deseginen edo likidatuaren kasuan, burutu gabe dauden itzulketa eginbeharrak kapitaleko kide edo partaideei helaraziko zaizkie eta esleitu zaien likidazio kuotaren balioaren mugaraino elkartasun osoz erantzungo dute.

4. Itzulketa eginbeharra zuen pertsona hil egiten bada, itzuli beharreko zenbatekoak ordaintzeko betebeharra kausadunei helaraziko zaie; aintzat hartuko da, halaber, kasu batzuetarako aplikagarria den eskualdaketari buruz zuzenbide zibilak finkatzen duena, zehatzago esateko, inbentario-onuradunak oinordetza jasotzeko kasuan.

II. KAPITULUA. ITZULKETA EGITEKO PROZEDURA

47. artikulua. Itzulketa egiteko prozedura.

1. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen VI. Tituluan jasotako administrazio prozedurei buruzko xedapen orokorren arabera egingo da, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean finkatutako espezialitateak aplikatzea debekatu gabe.

2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da erakunde eskudunaren erabakiz.

3. Itzultzeko prozedura hastea erabaki ondoren, kautelazko neurri gisa erakunde emaileak pertsona edo entitate onuradunari edo erakunde kolaboratzaileari ordaintzeke dauden zenbatekoetatik askatzea etetea erabaki dezake, baina itzultzeko txostenaren hasieraren proposamenean edo ebazpenean finkatutako zenbatekoa gainditu gabe, une horretara arte sortutako berandutza-interesekin batera.

Kautelazko neurri hori ezartzea arrazoitutako ebazpen bidez erabaki behar da, eta interesatuari helarazi behar zaio, dagozkion errekurtsioak aipatuz.

Edozein kasutan, kalte-ordainak lortzea ezinezkoa dela aurreikusten duten arrazoizko kausak egonez gero, eten egingo dira, edo modu larrian oztopatu edo huts egiten badu, eta bereziki, jasotzaileak bere ondasunak ezkutatzeko, kargak edo eskuragarritasunerako saiakerak egiten baditu.

Aurreko edozein kasutan, ordainketak etetea erregimen juridiko honen mende egongo da:

a. Lortu nahi den helburuarekiko proportzionala izan behar du, eta inolaz ere ez da egingo konpontzeko zailak edo ezinezkoak diren ondorioak sortuko baditu.

b. Eutsi egin behar zaio itzultzeko txostena bukarazten duen ebazpena eman arte, eta izapidetzeko

finkatutako gehieneko denbora ezin da luzatu, luzapenak barne.

c. Aurreko paragrafoan jasotakoa gorabehera, egoera eragilea desagertzen denean bukarazi behar da, edo interesatuak kautelazko neurri hori ordezkatzeko nahikotzat joko den berme bat eratzea proposatzen duenean.

4. Prozeduraren izapidetzean edozein kasutan interesatuak audientziarako duen eskubidea bermatuko da.

5. Itzultzeko prozeduraren ebazpena erakunde eskudunak emango du. Ebazpena emateko eta helarazteko gehieneko epea 12 hilabetekoa da, hasteko erabakiaren datatik zenbatzen hasita. Denbora epe hori eten edo luzatu ahalko da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 42. artikuluko 5. eta 6. ataletan adierazitakoaren arabera.

6. Itzultzeko eginbeharra dutenek, dagokion ebazpenak finkatzen duena gorabehera, jasotako zenbatekoa osorik edo horien zati bat itzuli beharko dute, berandutza interesekin batera. Horrez gain, kasu bakoitzean eska daitezkeen zigorrak ere ordaindu beharko dituzte.

Azkenean pertsona edo entitate onuradunak itzuli beharko duen zenbatekoa finkatzea, esandakoaren arabera, txostenetik eratorritako ez-betetzeen mailaren arabera izango da, edo espedientearen arabera, eta edozein kasutan, proportzionaltasunaren printzipioari erantzun beharko dio.

7. Itzultzeko prozeduraren ebazpenak bide administratiboa bukatuko du.

V. TITULUA

KONTROL FINANTZARIOARENA

48. artikulua. Kontrol finantzarioaren helburua.

1. Dirulaguntzen finantza kontrola pertsona edo entitate onuradunei egingo zaie, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileei.

2. Dirulaguntzen finantza kontrolaren helburua honako hauek egiaztatzea izango da:

a) Dirulaguntza modu egokian eta zuzenena lortu izana.

b) Jasotako zenbatekoak kudeatzen eta aplikatzen pertsona edo entitate onuradunek eginbeharrak bete izana.

c) Dirulaguntza modu egokian eta zuzenenean justifikatu izana.

d) Aurkeztutako justifikazioaren arabera, dirulaguntzarekin finantzatutako eragiketen errealitatea eta maiztasuna.

e) Diruz lagundutako jarduerak modu egokian eta zuzenean finantzatu izana, dirulaguntzen zenbatekoak, soilik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera diruz lagundutako jardueraren kostua ez gainditzeko.

f) Diruz lagundutako jardueraren finantzaketa kaltetu dezaketen gertaerak, egoerak edo aitortu gabeko egoerak jazotzea, edo dirulaguntza modu zuzenean eta egokian lortzea, erabiltzea, gozatzea edo justifikatzea, baita horrekin finantzatutako eragiketen errealitatea eta maiztasuna ere.

2. Aurreko ataleko ondorioetarako, finantza kontrola hainbat eratak izan ahalko da, esaterako:

a) Kontabilitate erregistroak, kontuak edo finantza egoerak eta hori eusten duen dokumentazioa aztertzea.

b) Emandako dirulaguntzak kaltetu ditzaketen edo lotuta egon daitezkeen eragiketa indibidualizatuak eta zehatzak aztertzea.

c) Dirulaguntzarekin lotutako edo kaltegarriak izan daitezkeen zenbait ekintzen alderdi partzialak eta zehatzak egiaztatzea.

d) Finantzatutako inbertsioak materialki egiaztatzea.

e) Kasu bakoitzean, dirulaguntzaren legedi arautzaileak, oinarri arautzaileek, lankidetzaz hitzarmenak edo hala badagokio, esleipen ebazpenak finkatzen duenaren araberrako kontrol jardueraz zehatzak.

f) Diruz lagundutako jardueren ezaugarri bereziengatik beharrezko beste egiaztatze batzuk.

3. Kontrol erregimen honen mende egongo dira pertsona edo entitate onuradunak, eta hala badagokio, erakunde kolaboratzaileak, eta deklaratzeko eginbeharra izango dute, baita Administrazio honek ez duen dokumentazioa emateko ere, erakunde eskudunak aipatutako funtzioak betetzeko eskatuz gero; horretarako, langileek azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako gaitasun eta eginbeharrak izango dituzte.

Eginbehar hori betetzeari uko egitea, aitzakiak jartzea edo oztopatzea dirua itzultzeko arrazoi gisa hartu ahalko da, kasu bakoitzean ezar daitezkeen zigorreraino gain.

49. artikulua. Kontrol finantzarioaren prozedura.

1. Udal Kontu-hartzaile zerbitzuak izango du Udal honek eta bertako Erakunde Autonomoek emandako dirulaguntzen finantza kontrola gauzatzeko eskumena.

2. Pertsona edo entitate onuradunen edo, hala badagokio, erakunde kolaboratzaileen finantza kontrolerako jarduerak hasi baino lehen haiei jakinaraziko zaie; jakinarazpenetan garatu beharreko jardueren izaera eta irismena adieraziko da, Udal Kontu-hartzaile zerbitzuari helarazi beharreko dokumentazioa azaldu eta beharrezko beste elementu batzuen berri emango zaie. Entitate edo pertsona onuradunak, edo hala badagokio, erakunde kolaboratzaileak eskubide eta eginbeharrei buruz informatu egin beharko dira jarduerak hasterakoan eta egiten diren bitartean.

3. Jarduera horiek gehienez 12 hilabeteko epean bukatu beharko dira hasi izana jakinarazten den unetik zenbatzen hasita.

4. Pertsona edo entitate onuradunen finantza kontrolerako jarduerak bukatzean azaleratutako gertaeren eta horietatik eratorritako ondorioak jasoko dituzten txostenak igorriko dira.

5. Txostenak kontrolaren objektu izan diren entitate edo pertsona onuradunei edo, hala badagokio, entitate kolaboratzaileei helaraziko zaizkie. Txostenaren kopia bat udal arloari ere helaraziko zaio, edo hala badagokio, dirulaguntza eman zuen erakunde autonomo kudeatzaileari; behar izanez gero, itzultzeko eta zigortzeko txostenak hasteko eginbeharraz informatuko zaie.

6. Udal Kontu-hartzaile zerbitzuak emandako txostenean dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko jatorria adierazten denean, erakunde emaileak erabaki beharko du, aipatutako txostenean oinarrituz eta hilabete bateko epean, itzultzeko txostena hastea, eta horren berri eman beharko dio pertsona edo entitate onuradunari edo erakunde kolaboratzaileari; azken horrek 15 eguneko epea izango du defentsarako egokitzat jotzen duena azaltzeko.

VI. TITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGOR ADMINISTRATIBOAK DIRULAGUNTZEN GAINEAN. ZIGORTZEKO PROZEDURA

50. artikulua. Arau haustek eta zigor administratiboak dirulaguntzen gainean. Zigortzeko prozedura.

1. Arlo horretan azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorreko 56, 57 eta 58. artikuluetan eta horiek garatzeko xedapenetan finkatutakoa aplikatuko da.
2. Alkateak izango du zigorrak ezartzeko eskumena.
3. Zigorrak ezartzeko erabakiek bide administratiboa bukaraziko dute.

AZKEN XEDAPENAK

Xedapen indargabetzailea. Ordenantza honetan ezarritakoaren aurka dauden, edo kontraesankorrak diren arau eta udal xedapen guztiak baliogabetuta daude.

Azken xedapenetako lehenengoa. Izaera orokorreko Ordenantza honetan aurreikusi ez den guztian, azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/ 2003 Lege Orokorrean finkatutakoa aplikatuko da, eta Dirulaguntzen Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan finkatutakoa ere bai.

Azken xedapenetako bigarrenkoa. Ordenantza hau Udalak onartu du, egunean egindako Osoko Bilkuran, eta indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hamabost lanegun igaro ondoren.

DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

HITZAURREA

Azaroaren 17ko 38/2003 legearen 8.1 art.ak oinarritzko izaera du, eta beraz, diru-laguntzak eman nahi dituzten udalek beren plan estrategikoa onartu behar dute.

Azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 legea aurrerapauso bat da sistema ekonomikoaren perfektionatze eta arrazionalizatze prozesuaren baitan. Legearen printzipioetako bat gardentasuna da, eta horrek, beste hainbat printzipioekin batera, diruz lagungarria den gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun eta efizientzia maila handitzen ditu.

Diru laguntzei buruzko informazio gehiago izateak, merkatuan eragina izango duen distorsio eta interferentziak kendu ahalko ditu eta, horrez gain, herri administrazioen osagarritasun eta koherentzia erraztuko ditu edozein teilkatze saihestuz.

Efikazia hobetze aldera legeriak aurreikusten du diru laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea, urte antzekoa eta diru laguntzak eman edo Udalbatzak egin ditzakeen lankidetzak hitzarmenak egin aurretik Hitzarmen horiek udalbatzak egin ditzake irabazi asmorik gabeko fundazioekin eta beti ere, diru laguntzei buruzko ordenantza orokorrean aurreikusitako baldintzetan.

Horretarako, udal honek diru laguntzei buruzko plan estrategiko onartzen du eta ondoren zehazten dira plan horretako artikulak.

I KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1 Artikulua.

Udal honen diru laguntzak 2013-2015 aldian, plan honetan jasotakoari jarraituko zaizkio.

2 Artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eman ahal izateko, urte bakoitzeko aurrekontuan dagokion kon-
tsignazioa egon beharko da eta oinarriak jasotzen dituzten ordenantzak onartu beharko dira.

3 Artikulua.

Diru laguntzak eman ahal izateko, aurrekontu egonkortasun helburuak bete beharko dira, eta onartzen diren

aurrekontu kontsignazioak nahiz oinarri arautzaileak helburu horiei egokituko zaizkie.

4 Artikulua.

Diru laguntzei buruzko plan estrategikoa onartzeak ez dakar inolako eskubiderik balizko onuradunen alde, ezingo baitute kalte-ordainik edo konpentsaziorik eskatu baldin eta plana ez bada gauzatzen.

II KAPITULUA. -DIRU LAGUNTZEN ONURADUNAK ETA ARLOAK

5 Artikulua.

Udalak diru laguntzak emango dizkie deialdi publiko edo zuzeneko emakidaren bitartez, pertsona, elkarte edo entitate pribatuei. Helburua izango da erabilera publikodun edo interes sozialeko jarduerak edo udal eskumeneko helburu publikoak sustatzea.

6 Artikulua.

Udalak urtero arlo hauetan eskainiko ditu diru laguntzak:

— Arlo soziala.

— Euskara.

— Kultura.

— Kirolak.

III KAPITULUA. -ARLO SOZIALEKO DIRU LAGUNTZAK

7 Artikulua.

— Gazteria.

Helburuak: Denbora libreko jarduerak sustatzea nerabeen artean, udako jarduerak.

Aurreikusitako gastuak: 11.000 euro.

Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuko bigarren eta laugarren kapituluan.

— Zerbitzu Sozialen Arloa.

Helburua: Familia esku-hartzerako ekintzak sustatzea; zorigaizto edo babes-gabezia kasuen aurrean laguntzak (salbuesteak, pobrezia, familiei laguntzak); sektoreari laguntzak (adinekoak, emaileak); udalerriko hezkuntza erakundeetan sarbidea erraztea.

Aurreikusitako gastuak: 125.000 euro.

Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuko bigarren eta laugarren kapituluan.

— Nazioarteko Elkartasuna.

Helburua: Nazioarteko elkartasun programak edo senidetzetik eratorritakoak.⁹ laguntzea.

Aurreikusitako gastuak: 43.000 euro

Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuko laugarren kapituluan.

IV KAPITULUA -EUSKARA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

8 Artikulua.

Helburua: Euskararen erabilera sustatzera bideraturiko jarduerak, entitateak eta elkarteak bultzatu eta laguntzea; euskararen ikaskuntza laguntzea.

Aurreikusitako gastuak: 55.000 euro.

Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuko laugarren kapituluan.

V KAPITULUA. -KULTURA ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

9 Artikulua.

Helburua: Diruz laguntzea Kultur programak eta gertaerak, Ibarra irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateek antolatuak.

Aurreikusitako gastuak: 17.000 euro.

Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuko laugarren kapituluan.

VI KAPITULUA. -KIROL ARLOKO DIRU LAGUNTZAK

10. artikulua.

Helburua: Kirol praktika sustatzea; udalerrian kirol jarduerak laguntzea; kirol arloko jarduerak programatzen edo burutzen dituzten entitateei laguntza ematea.

Aurreikusitako gastuak: 35.500 euro.

Finantzazioa: Funts propioekin egingo da, aurrekontuko laugarren kapituluan.

VII KAPITULUA. -PLANAREN KONTROLA ETA EBALUAZIOA

11 Artikulua.

Ogasuneko batzordeburuak plan honen betetze-kontrola egingo du bere indarraldian.

Horrez gain, urte bakoitzaren lehenengo hiruhilekoan, batzorde horren aurrean aurkeztuko du planaren exekuzioa ebaluatzen duen txostena.

12 Artikulua.

Planaren indarraldia amaitutakoan, eta hurrengo egin aurretik, ogasuneko batzordeburuak batzordeari aurkeztuko dio memoria bat. Memoria horretan honakoa jasoko da gutxienez: Planaren betetze maila; diru laguntzen eraginkortasuna eta efizientzia lortu nahi diren helburu eta asmoetan; ondorioak; iradokizunak hurrengo plan estrategikorako.